

Lizeo zaharra, antzoki berria

Hurrengo urteko jaietarako, zinema eta antzoki berria estreinatuko du Gernikak

1986tik, Lizeo zaharra itxi zenetik, Gernikak ez du inolako zinema edo antzokirik izan. Inguruko herriak bezala, zinema zaharra udal antzoki bilakatzea erabaki dute herriko agintari politikoek, herriari eta bertako talde kulturaleri horrelako zerbitzu bat emateko.

Itun bidez hitzartu dituzte Lizeo antzokiaren jabetzaren ingurukoak herriko udal agintariak eta zinema zaharreko enpresako ordezkariak. «Lurgorriko solairua, Gernikako sarrerako biribilgunea euren esku utzi 100 milioi pezetarengatik eta, horren truke, Lizeoa Udalaren esku geratu da 80 milioi pezetarengatik», azaldu digu Miguel Angel Aranaz Gernikako alkateak. Aski ondo ezagutzen ditu Miguel Angel Aranazek gestio horren gorabeherak, bera izan baita aurreko agintaldian Hirigitza zinegotzia.

Udal kultur patronatu batek kudeatuko du Lizeo antzokia. Hala ere, zinema emanaldien ardura enpresa pribatu batek izango du

Lizeo antzokia berritzeko lanak bi fasetan banatu dira, eta, udal ordezkarien arabera, datorren urteko jaietarako estreinatu ahal izango da Lizeo antzoki berria.

Lehen fasea amaituta dago. Fase horretan, eraikinaren egitura indartu eta teitlatua berritzeaz gain, agertokia eta aforoa bota dituzte, bigarren fasean egingo den egiturari lekua uzteko. Bigarren fasearen aurrekontua 200 milioi pezetakoa izanik, Madrilgo Sustapen Ministerioak 133 milioiko diru laguntza onartu du. Bizkaiko Diputazioak, berriz, 40 bat milioi emango ditu.

Esan bezala, agertokia eta aforoa aldatuko dira gehien.



GORKA BILBAO



Bukatua da Lizeo zaharra eraberritzeko lanen lehen fasea, eta orain bigarren fasean lanean daude; azken fasean, hain zuzen.

«Agertokia handitzea beharrezkoa zen, eta, horren ondorioz, aforoa murriztu egin behar izan dugu. Lehen 500 bat eserleku ziren, eta Lizeo antzoki berriak 360 eserleku inguru izango ditu», adierazi digu Miguel Angel Aranazek. «Hala ere, lehengo egitura gordetzearen alde gaude, estetikoki antzokiak dituen ezaugarriak gordeko ditugu», gaineratu digu.

Kulturaren errentagarritasuna

«Aspalditik sumatu genuen Gernikak antzoki baten beharra zuela», diosku Gernika-

ko alkateak. «Orain arte, kultur ekitaldietarako behar genuen espreski horretarako lekua. Institutuko aretoan egin izan dira orain arte, baina ez da nahikoa, ez dago behar legez prestatuta horretarako».

Lizeo antzoki berriaren gestioa udal kultur ordezkarien esku geldituko da, nahiz eta zinema emanaldiak enpresa pribatu batek eramango dituen. «Zornotza aretoa gestioan den bezala, udal kultur patronatu bat sortuko dugu antzokiaren gestioa egiteko», esan digu alkateak: «Eta espero dugu antzoki honek herriko kultur eskaintza berpiztea».

"GERNIKA" IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA



**Seber Altube
Ikastola**

Zearreta, z/g - 627 00 03 tel. - 94 627 01 53 faxa
GERNIKA

ARGITU DAGIGUN ETORKIZUNA
EUSKARA ZABAL HADI HERRIRA



**GERNIKAKO
INDUSTRIALDEA, S.A.**

INDUSTRI MODULUAK

Azalera 292 metro karratutik
Garaiera 9 metrotik 11 metrora bitarte.
Zubi-garabia izateko eta tartean solairu bat egiteko aukera
Eraikitako azalera guztira:
15.000 metro karratu

TXAPORTA INDUSTRIALDEA
Goikoibarra kalea, 32 - 1.
48300 GERNIKA - LUMO

INFORMAZIOA


Tel.: 94 625 68 09
Faxa: 94 625 50 12



Fotokopiak Z/B
Fotokopia digitalak
Koloretako fotokopiak
Koloretako edizioak
Planoen fotokopiak

Transparentziak
Enkuadernazioak
Plastifikazioak
Fax Publikoa

KOPI LASTER Artekalea, 5 - 48300 GERNIKA
Tel./Faxa: 946 254 714 E-mail: kopilaster@jet.es



Dioni Arrien Dk.

Mediku Odontologoa
I.M.Q. (Lagun Aro) - O.P.E. 93/94

ORTODONTZIA ESKLUSIBOA

J. M. Valdibieso Dk.

Mediku Odontologoa
Haurrak eta Helduak - O.P.E. 105/94

Erriabarrena kalea, 2 - Tfnoa.: 94 625 56 88 - GERNIKA-LUMO



EUSKARA, INSUMISIOA,
ASKATASUNA, KAÑA, AMNISTIA,
JAIA, BERDINTASUNA,
UMOREA, BORROKA
...eta zure xoxak

ARRANON